

MUNDUZ - MUNDU

EUSKAL-JAIA EIBAR'EN

Euskal-jai ederra egin zan epallaren 31'n Eibarko Astelena pelota-toki entzutetsuan bertako Karmeldar lekaideen eleiza barria elburu-aitzakitzat ipiñita.

Egikariak zeziran edozelakoak: Begoñako Karmeloko GAZTEDI dantza-taldea, TXINPARTAK Bilboko euskal-antzerki-taldea, Arrate'tar Itziar soñu-jotzalea ta Enbeita'tar Balendin Muxikako bertsolari jatorra, Kepa URRETXINDORRAREN semea. Ederrak ziñez eurak agertu ebezan lanak.

Gaztedik Baztan eta Luzaide, Gipuzkoa ta Bizkaiko yantzakin poz-eztitan eukan bertaratu zan oztea. Onela dantzatutzen sekula etzute la ikusi iñoen guztiak. Oso atsegin izan yaken danai Gaztediren ekitaldia saritzat txalo beroak jorik.

TXINPARTAK euskal-antzerki-taldeak pilpil jarri ebazan biotzak agertu zanean. Agur yaunak, Aritz-adarrean, Olentzero ta Sorgin-yantza abestu ebezan bere abots meak. Gero neska-mutillak antzerki motz-polit bi agertu ebazan: "Jai-arratsalde" baten eta "Biotz apala". Txalogarri ta ederra talde onen lana; txaloak ugari jo eutsoezan zan ozteak. Gai ontan gure erriak dauan talderik onena dogu TXINPARTAK. Euskaltzaindiren babespean dagoan ezkerro euskaldun on guztien bero ta laguntza artu bear leukez gure erri-bazterretan sartu daitea...

Arrarte andereñoak euskal-eresi goxo-politik entzun-erazi zitun: Itxasoa laño dago, Oñazez, Iru Damatxo, Maritxu nora zoaz eta abar. Ozteak adi-adi entzun ebazan Arrarte gaztearen eresiak txalo luzeakin sariturik.

Oztea zutik jarri zan Enbeita agertu zanean. Ura txalo-jotzea! Bai ba. Kepa, Kepa andia, Kepa illezkorra eben askok eta askok go-goan semea ikustean... Eibar eta Euskera gaitzat arturik bero-bero-

tan euki eban Enbeita jaunak oztea. “Kepa bera zirudian —inostan zar batek begiak malkoz— bere esaera, bere doñua, bere abotsa; aita bera zirudian.” Sarri entzun deusagu Enbeitari bertsoetan eta egiz andia egin yaku beti. Basarri, Uztapide, Lizaso ta beste batzuekin enzutea oso ondo legoke urrengo baten adiskidetasun-burrukan.

Ozteak pozarren itxi eban jolas-tokia. Lerro onein egilleak beontzat eukazan une zoriontsu aretan jaia antolatzeke izan ebazan lan eta estualdiak. Saririk naiko zan.

Onelako jaiak antolatzea errez ez da; baña erri-jaietan-da agintariekin aituta zertxobait egiten alegindu bear dogu. Erria gose da, erria egarri da; bere gose ta egarri au asetzen alegindu gaitezcan geure aldetik beintzat.

Eibar, yorrallak 5

GOIRIA

